

# STARTINNOVA

## CEO3

### FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektuak ondo funtziona dezan, behar-beharrezko elementua plastikoa izango da, baina ez edozer plastiko, baizik eta besteek erabiltzen ez duten plastikoa, enpresei soberan gelditzen zaien plastikoa, itsasoan dagoen plastikoa... Horretarako, plastikoa biltzera irten beharko ginateke horrela, gure produktua egiteko. Gure langileez aparte, boluntarioak eskatuko ditugu, azkenaldi honetan jende asko baitago prest ingurumena laguntzeko. Plastikoa biltzera joateko irteerak astean behin izango dira.

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

1. **Baliabide fisikoak:** Gure kasuan plastikoa izango da gure lehengaia. Hala ere, makineria beharko dugu plastiko hori funda batean bihurtzeko (urtzeko, forma emateko...).
2. **Baliabide intelektualak.** Adb: Enpresako diseinatzailea, logoa egiten duena, marketing arloan lana egiten duena, langileei lan-ordena jarraituarazten diena, etab.
3. **Giza baliabideak:** ordainsariak zehazten dituen bi langile egongo dira, lan-segurtasuna bermatzen dituzten beste bi eta lana gainbegiratuko dituzten hiru pertsona. Enpresa kudeatzen dutenak gu izango gara (Leire, Beatriz eta Diana).
4. **Finantza-baliabideak.** Erosketekin finantzatuko dugu gure enpresa. Aurreztaile eta inbertitzaileen beharrei hobekien egokitzen zaizkien produktuak eskeintzea izango da arlo honetan lan egingo duen langilearen betebeharra, bien asebetetzea ahalik eta kostu txikienarekin lortuz.